



ONDORIOA ETA PROPOSAMENA

LEHENA.- Kontuan hartuta 2025eko maiatzaren 13an Mutrikuko Saturran hondartzan *Food Truck* edo gastrofurguak jartzeko baimenaren oinarriak publikatu zirela.

BIGARRANA.- Kontuan hartuta 2025eko maiatzaren 14tik 24ra bitartean aurkeztu behar zirela bai proposamenak bai oinarrietan aurreikusitako agiriak.

HIRUGARRENA.- Kontuan hartuta 2025eko maiatzaren 16an, 958/2025 erregistro zenbakiarekin, **BASQUE TRUCK SL** enpresak aurkeztutako proposamena eta agiriak.

LAUGARRENA.- Kontuan hartuta 2025eko maiatzaren 19an, 959/2025 erregistro zenbakiarekin, **KEMEKOMO S. COOP. PEQUEÑA** enpresak aurkeztutako proposamena eta agiriak.

BOSGARRENA.- Kontuan hartuta proposamen horien balioztapena egiteko aintzat hartu direla oinarrietan adierazitako balioespen-irizpideak; eta, kontuan hartuta, 2025eko maiatzaren 26an, Udal arkitekto teknikoak helarazitako txostena, ondorengo da hautagai bakoitzak lortutako puntuaketa:

HAUTAGAIA	LAN PROGRAMA ETA KUDEAKETA OROKORRA	ESKAINITAKO PRODUKTUEN AURREIKUSPENA	BALDINTZA ESTETIKOAK	GIZA BALIABIDEAK	GUZTIRA
BASQUE TRUCK SL	15	12.5	8	10	45.5
KEMEKOMO S. COOP. PEQUEÑA	7	8	8	6	29

SEIGARRENA.- Horrenbestez, Mutrikuko Udalak *Food Truck* edo gastrofurguak jartzeko baimena **BASQUETRUCK SL** enpresari esleitzea proposatu du.

ZAZPIGARRENA .- Honako hauek dira baimen honen alderdi nagusiak:

- Baimena 2025/06/13tik 2025/09/15era izango da (93 egun).
- Zerbitzua emateko gutxieneko ordutegia 11:00etatik 22:00etara izango da, baina baldintza meteorologikoak gorabehera, sorospen zerbitzuaren ordutegira murriz



Mutrikuko Udala

daiteke zerbitzua, hots, ekaina eta iraila 11:30etatik – 18:30etara eta, uztaila eta abuztua, berriz, 11:00etatik 19:00etara. Egoeraren bat dela eta, esleipendunak ordutegia luzatu nahiko balu, berriz, udal honi baimena eskatu beharko dio, 5 lan eguneko aurrerapenarekin.

- Kokalekua aparkalekuko harrizko bankuen eta kantineko eraikin zaharraren artean izango da, II. Eranskina: planoak dokumentuan zehazten den moduan.
- Tasak:

4,98 € x gastrofurgo bakoitzak okupatutako azalera x 93 egun

- Baimena hurrengo dokumentazioa aurkezteari baldintzatuta egongo da:
 1. Titularraren argazki bat, nortasun agirikoaren tamainakoa.
 2. Tasa ordaindu izanaren frogagiria eta fidantza.
 3. Ekonomia Jardueren Gaineke Zergaren alta, edo Ekonomia Jardueren Gaineke Zergaren barruan dagokion epigrafean alta eta bajen egiaztagiria
 4. Saltzaileek elikadura-higienearen arloan jasotako prestakuntza egiaztatzen duen
 5. Salmenta jardueraren ondorioz kalte-galerarik sortuko balitz ere, horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria eta poliza bera.
- Aipatutako agiriak 2025eko **maiatzaren 27tik 30era aurkeztu beharko dira.**
- Baimenak 2025eko ekainaren 3tik aurrera jaso beharko dira Mutrikuko Udalean (08:30etik 14:00etara).

ZORTZIGARRENA.- Baimena, oinarrietan zehaztutako baldintza guztiei lotuta egongo da.

BEDERATZIGARRENA.- Oinarrietan ezartzen den bezala, baimenari, kaleko salmenta arautzen duen Udal Ordenantzaren III. kapituluko 32. artikuluan aurreikusten den hutsegite eta zigor erregimena aplikatuko zaio.



Mutrikuko Udala

Mutrikun, sinadura elektronikoaren datan
IDAZKARITZAKO TEKNIKARIA

Ane Arreitunandia Elordi